



ZUK ERE EGIN DEZAKEZU


Zuhaitzak ordezka ditza-keen ezer ez dago munduan. Aire garbi mantentzen laguntzeaz gain, hegazti zein beste animaliek bizi ahal izateko tokia, mendiaren oreka, edertasuna, fruituak, ... eskeintzen dizkigute.



Zuhaitzak karbono dioxidoa xurgatzen dute. Kotxe eta lantegiek, ikatza eta petrolioaren erretzean, gas honen kantitate erraldoiak botatzen dituzte airea. Orain arte lurrak eduki duen oreka egunetik egunera apurtzen ari da. Gizakiaren eraginagaitik kutsadura haundituz doa eta zuhaitzak gutxitzen.



Europarrok, batzuetan beste, zazpi zuhaitz kontsumitzen omen ditugu laguneko eta urteko. Honi erai-kuntza berriekin (autobideak, urbanizazioak, industrialdeak ...) suntsitzen direnak gehitu beharko genizkioke.




● Zuhaitzak landatzea; gure amalurra babesteko egin dezakegun gauzarik hoberenetarikoa da. Gainera oso dibertigarria.

● Ziur aski zure etxe ondoan, auzoan edota Jaizkibelen laguntza behar duen lur eremuren bat egongo da. Zuhaitzik gabeko eta zaborrez beteriko toki bat izan daiteke.

● Hitzegin zure auzokide, lagun edo ikaskideekin zuhaitzak landatuko dituen talde bat antolatzeko. Zuhaitzak landatzea uste baino errezagoa da, eta lurrarentzat oso garrantzitsua. Prest al zaude ?


Lur eremu bat aukeratu eta gero, garbiketa lanak egin behar dira hasi baino lehen: sasiak moztu eta zaborra baldin badago bildu. Berez ateratzen diren zuhaitz zein zuhaixkak errespetatuko ditugu, naturak berpizteko egiten duen lana bait da. Guk horretan lagundu nahi dugu.

Ondoren zuloak prestatuko ditugu, ateratako lurra ondoan utziko dugu geroago erabiltzeko: lur ona alde batera, eta harriak, buztina, sustraiak, beste aldera. Dena prest.




Orain aldatuko ditugun zuhaitzak lortu behar ditugu. Bertako motak aukeratuko ditugu, geure inguru eta eguraldiari ohi-tuta bait daude eta gainera haue-tako asko toki askotan desagertze-ko bidean edo desagertuak dau-de dagoeneko.

Lizarra, haritza, artea, pa-goa, astigarra, gorostia ... Landaretxoak basoetan sortzen di-renak edota mintegi batetakoak izan daitezke.



Eguraldi onarekin landareak aldatzera joango gara. Aurretik gauzatxo batzuk izan behar ditugu kontutan:


- aldatuko ditugun landareek aha-lik eta sustrai eder eta gehienak izan behar dituzte.
- zuloan sartzean, sustraietara lur ona eta askatua botako diogu. Noizean behin landarea piska bat astinduko dugu, gora eta behera, lurra tarte guztietan sar dadin.



- zuhaitzaren ipurdia lur azalean geratu behar du, ez kanporago, ez barrurago.
- Lurra takiatuko dugu (poli-ki poliki estutzen joango ga-ra), tarteko airea kentzeko asmoarekin.

■ Azkenik, geratzen den inguruko lurra landareruntz hurbildu eta ha-rriak eta belarra jarriko dizkiogu inguruan estalki modura. Honek lurra-ren hezetasuna mantenduko du eta us-teltzean ongarri bihurtuko da.

Eta kitto ! Udaberrian hostoz no-la betetzen diren eta gure lana ez dela alperrikakoa izan ikusiko dugu.



Lan hauek egiteko ez duzu tresna askoren beharrik. Hasteko aitzurra edota palarrarekin nahikoa izango duzu.

Tresneria eta landareak lortzeko, edo beste edozein gauza galdetzeko herrian lan hauek burutzen dituzten jendearekin edo udalarekin harremanetan jarri zaitezke.

Herri aldaketak burutzen ditugun jende talde bat Txerrimuñon elkartzeko gara larunbatero goizeko 9etan.



ANIMO ETA EGIN LANARI!!

DENON ARTEAN BASOA SOR DEZAKEGU!!

Lezoko Ekoloji Taldea

